_______________________ (e)ko Udaleko talde politikook adierazpen hau egiten dugu:

Erbestea etengabeko konstantea izan da gizateriaren historian, baita gurean ere: gu ere erbeste izan ginen. Eta gaur babes izatea dagokigu. Irmoki sinesten dugu errefuxiatuen eskubideetan, eta harrera integrala eta duina emateko konpromisoa hartzen dugu.

Orain, erbestealdiaren eta aterpearen bideak irauli egin dira. Gure erbestearen memoriak laguntzen digu gaur egun gerratik, indarkeria politikotik, genero-jazarpenetik, ingurumenaren degradaziotik eta bizitzaren prekarizaziotik ihesi doazen pertsonekin enpatia sentitzen.

Azken urteotan, gora egin du Euskadira nazioarteko babes bila datozen pertsonen kopuruak, bai eta Europako beste herrialde batzuetara bidean gure lurraldetik igarotzen direnen kopuruak ere.

Pandemia gorabehera, 2020an eta 2021ean Euskadik 4.809 asilo-eskatzaile jaso zituen (% 42 emakumeak ziren eta % 17 adingabeak). 2022an, nazioarteko babesa behar duten pertsonen fluxuak berraktibatzen ari dira: aurtengo urtarriletik apirilera bitartean, ia 1.287 eskaera erregistratu ziren, hau da, 2021 osoan aurkeztutakoen % 75.

Kopuru horri gehitu behar zaizkio Ukrainako gerratik ihesi iritsi direnak eta, 2001/55 Zuzentaraua lehen aldiz aktibatzeari esker, aldi baterako babeserako mekanismo espezifiko bat eskura dutenak.

Euskadi, beraz, iheslarientzako igarotze eta iriste leku garrantzitsua bihurtu da. Euskadin geratzen direnen kasuan, duten onarpen eta aintzatespen urriak baldintzatu egiten du haien gizarte-inklusioa ahalbidetuko duen eskubide eta zerbitzuetarako sarbidea, eta horrek pertsona asko zaurgarritasun handiko egoeretara bultzatzen ditu. 2020tik 2021era bitartean, Espainiako estatuan nazioarteko babesa aitortu zitzaien pertsonak % 7 baino gutxiago izan ziren, eta EBn, berriz, % 30 baino gehiago. Arrazoi humanitarioengatik bizilekua baimentzeko bidea Venezuelatik datozenenei ematen zaie ia modu esklusiboan. Bide honek dokumentazioa eta gizarteratzea errazten ditu, nahiz eta eskatzaileak ez diren errefuxiatutzat hartzen.

Ondorioz, nazioarteko babes-eskaera ukatzen zaien pertsonak (gehienak) zuzenean irregulartasun-egoerara igarotzen dira. Lana izatekotan, berehala galtzen dute. Harrera-sistemaren parte baziren, azkar ateratzen dituzte bertatik (15 egunetan), alternatiba juridiko eta sozialik gabe. Egoera horrek eragin handia du udaletako gizarte-zerbitzuetan eta migratzaileen kolektiboari eta gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonei lotutako beste gizarte-erakunde batzuetan.

Mugei, nazioarteko babesari edo atzerritartasunari dagozkien politikak Estatuaren eskumenekoak badira ere, berehalako premiak tokiko erakundeetan kudeatzen dira, hala nola benetako harrera ematea eta integrazioa eta elkarbizitza aniztasunean gauzatzeko aukera. Autonomia Erkidegoak gizarte-zerbitzuen arloko eskumena du, eta euskal aginte publikoak dira pertsonen eta horiek osatzen dituzten taldeen askatasuna eta berdintasuna eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen baldintzak sustatzeko eta oztopoak kentzeko neurriak hartu behar dituztenak.

Xede honetan, hiriek eta udalerriek funtsezko zeregina dute. Horregatik guztiagatik, _______________________ (e)ko Udalak honako hau eskatzen dio Espainiako Gobernuari:

1. Nazioarteko babesa aitortzeko estandarrak berma ditzala, Europako gainerako demokrazienekin bat etorriz.

2. Pertsona guztien asilo-eskubidea ziurta dezala, hauen jatorrizko herrialdea edozein dela ere. Ukrainako krisiak agerian utzi du, borondate politikoa dagoenean, nazioarteko babesa behar dutenak hartzeko mekanismoak egon badaudela.
3. Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonentzako harrera-sistemaren malgutasuna eta iraunkortasuna ziurta dezala, pertsonak ardatz dituzten gizarteratze-prozesu eraginkorrak bermatu ahal izateko. Gure herrialdeko gizarte- eta lan-eremuko aldaketetara egokituko den sistema bat, behar bereziak dituzten pertsonei arreta emateko bitarteko egokiak izango dituena, eta, aldi berean, pertsonen aniztasuna kontuan hartuko duena (besteak beste, generoari eta sexu-joerari dagokionez, erlijioari eta kulturari dagokionez, adinari dagokionez...).
4. Tratu-berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko Lege Integrala onar dezala, eta Tratu-berdintasunerako eta Diskriminaziorik Ezerako organo independente bat sor dezala, diskriminazioaren biktimei arreta, laguntza eta erreparazioa emateko baliabide nahikoekin eta izaera eta eremu desberdinetako politika eta eragile diskriminatzaileak behatzeko eta haietan eragiteko ere.
5. Gizaki-salerosketaren Biktimak Babesteko eta Laguntzeko Lege Integrala onar dezala.

Eta, era berean, gainerako administrazio publikoekin koordinatuta eta bere eremutik, ____________________ (e)ko Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Etxebizitza soziala eta gizarte-, hezkuntza-, osasun- eta kultura-arloko baliabideak eta dirulaguntzak eskuratzeko erraztasunak ematea, nazioarteko babes-premiak dituzten pertsonen eta aberrigabeen zailtasunak aintzat hartzen dituzten irizpideak ezarriz, egoera bereziki ahulean dauden pertsonak kontuan hartuta, hala nola genero-arrazoiengatik jazarpena jasan duten edo indarkeria matxista jasaten ari diren emakumeena.
2. Gizarte-prestazioak eskuratzeko irizpideak ezartzea horien lorpena erraztera begira, eta ez prestazioak etetera bideratuta; esate baterako, jatorrizko herrialdean lortu ezin diren agiriak edo Espainiako estatuan ez dauden senideak salbuestea, izapideak arintzea eta komunikazioa hobetzea.
3. Enplegu-bilaketa aktiborako sarbidea erraztea, prestakuntza egoki, publiko eta doakoaren bidez, bai tokiko hizkuntzak ikasteko zein etorkizunean enplegua lortzeko aukerak hobetuko dituen prestakuntza jasotzen jarraitu ahal izateko.
4. Osasun mentaleko arreta-sarerako edo lan psikologikora zuzendutako taldeetan parte hartzeko sarbidea erraztea, bizi izandako egoera traumatikoetatik errekuperatzen laguntzeko.
5. Diskurtso diskriminatzaile eta xenofoboei aurre egitea, prebentzio- eta monitorizazio-neurriak hartuz, eta integrazio-, bizikidetza-, berdintasun- eta diskriminaziorik gabeko planak eraginkortasunez diseinatu eta inplementatzen direla bermatzea administrazioaren maila guztietan, ikuspegi komunitariotik eta beharrezko aurrekontu-esleipenarekin.
6. Tokiko biztanleei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak gauzatzea, errefuxiatuekin eta migratzaileekin batera gizarteratzean eta elkarbizitzan eragiteko, hala nola zurrumurruen aurkako estrategien bitartez.
7. Diskurtso arrazista eta xenofoboen aurkako jarrera irmoa izatea, diskurtso politikoek immigrazioa instrumentalizatzen ez dutela eta gorrotoaren bidez gizarte-haustura sustatzen ez dutela zainduz.
8. Zerbitzu publikoetan diskriminazioaren eta tratu-desberdintasunaren biktimei arreta ematea.

9. Memoria historikoaren balioa azpimarratzea, duela ez hainbeste, gu ere erbeste izan ginelako. Orain babesa izatea dagokigu.

Los Grupos Políticos del Ayuntamiento de ____________________ realizamos la siguiente declaración:

El exilio ha sido una constante en la historia de la humanidad y ha estado presente en la nuestra: también fuimos exilio. Y hoy nos corresponde ser refugio. Creemos firmemente en los derechos de las personas refugiadas y nos comprometemos con una acogida integral y digna.

Los caminos de exilio y refugio se han invertido entre ayer y hoy. La memoria de nuestro propio exilio nos permite empatizar mejor con quienes hoy huyen de la guerra, la violencia política, la persecución de género, la degradación del medio ambiente y la precarización de la vida.

En los últimos años se ha incrementado el número de personas que vienen a Euskadi con necesidad de protección internacional y también el número de quienes la atraviesan en su tránsito hacia otros países de Europa.

A pesar de la pandemia, durante los años 2020 y 2021 Euskadi recibió un total de 4.809 solicitantes de asilo, (42% mujeres y el 17% menores). En 2022 se están reactivando nuevamente los flujos de personas con necesidades de protección internacional: solo entre enero y abril de este año se registraron casi 1.287 solicitudes, es decir, un 75% de las presentadas en todo 2021.

A esta cifra hay que añadir a quienes han llegado huyendo de la guerra de Ucrania y que, gracias a la activación, por primera vez, de la Directiva 2001/55, tienen acceso a un mecanismo específico de protección temporal.

Euskadi se ha convertido, por tanto, en un importante lugar de tránsito y de llegada de personas refugiadas. Para quienes se quedan en Euskadi, el acceso a derechos y servicios que permita su inclusión viene condicionado por una tasa de reconocimiento exigua que aboca a muchas personas a situaciones de mucha vulnerabilidad. Entre 2020 y 2021 las personas a las que se les reconoció la protección internacional en el Estado español supusieron menos del 7%, frente al porcentaje superior al 30% de la UE. La vía de autorización de residencia por razones humanitarias, que facilita la documentación e incorporación social pese a no ser reconocidas como refugiadas, se emplea casi en exclusiva para quienes proceden de Venezuela.

En consecuencia, quienes reciben una denegación a su solicitud de protección internacional (la mayoría) pasan a una situación de irregularidad sobrevenida. Si tenían empleo, lo pierden de inmediato. Si formaban parte del sistema de acogida, salen del mismo de manera acelerada (15 días) y sin alternativa jurídica y social. Esta situación está produciendo un gran impacto en los servicios sociales municipales y en otras entidades sociales vinculadas al colectivo de personas migrantes y a personas en riesgo de exclusión social.

Si bien las políticas de fronteras, de protección internacional o de extranjería son competencia estatal, es en el ámbito local donde se gestionan las necesidades más inmediatas, la acogida efectiva, la integración y la convivencia en la diversidad. La Comunidad Autónoma tiene la competencia en el ámbito de los servicios sociales y son los poderes públicos vascos quienes deben adoptar las medidas dirigidas a promover las condiciones y a remover los obstáculos para que la libertad y la igualdad de las personas y de los grupos en que se integran sean efectivas y reales.

En este mandato las ciudades y los municipios tienen un papel clave. Por todo ello, el Ayuntamiento de ____________________ insta al Gobierno español a que:

1. Garantice unos estándares de reconocimiento de la protección internacional acorde al resto de las democracias europeas.
2. Asegure el acceso al derecho de asilo a todas las personas independientemente de su país de origen. La crisis de Ucrania ha puesto de manifiesto que, cuando hay voluntad política, existen mecanismos para acoger a quienes necesitan protección internacional.
3. Asegure la flexibilidad y sostenibilidad del sistema de acogida a personas solicitantes de protección internacional con el fin de garantizar procesos de inclusión efectivos, centrados en las personas. Un sistema que se adecue a los cambios sociales y laborales de nuestro país, y que cuente con los medios oportunos para atender a personas con necesidades especiales, atendiendo a su vez las diversidades de las personas (de género y preferencia sexual, religiosa, cultural, edad, entre otras)
4. Apruebe la Ley Integral de igualdad de trato y no discriminación y la creación de un órgano independiente para la Igualdad de Trato y no Discriminación dotado de recursos suficientes para la atención, acompañamiento y reparación de víctimas de discriminación, así como para el trabajo de vigilancia e incidencia sobre políticas y agentes discriminatorios de diferente carácter y ámbito.
5. Apruebe la Ley Integral de Protección y Asistencia a las Personas Víctimas de Trata de Seres Humanos.

Y, a su vez, en coordinación con el resto de administraciones públicas involucradas y desde su ámbito, el Ayuntamiento de ______________________ se compromete a:

1. Facilitar el acceso a vivienda social, recursos y prestaciones sociales, educativas, sanitarias y culturales estableciendo criterios que contemplen las dificultades de las personas con necesidades de protección internacional y apátridas, teniendo en cuenta el acceso de personas en especial situación de vulnerabilidad como las mujeres que han sufrido persecución por motivos de género o están viviendo violencia machista.
2. Establecer criterios de acceso a las prestaciones sociales que faciliten su obtención y no la suspensión, como, por ejemplo, la exención de documentos de imposible obtención en país de origen o de familiares que no se encuentran en el Estado español, la agilización de los trámites y la mejora de la comunicación.
3. Facilitar al acceso a la búsqueda activa de empleo, a través de formación adecuada, pública y gratuita tanto para la adquisición de los idiomas locales como para poder continuar con formaciones que mejoren sus posibilidades de acceso al empleo en el futuro.
4. Facilitar acceso a la red de atención de salud mental o a dispositivos grupales de trabajo psicológico que faciliten que las personas se recuperen de las situaciones traumáticas de las que vienen.
5. Combatir los discursos discriminatorios y xenófobos adoptando medidas de prevención y monitoreo y garantizar el diseño e implementación efectiva de planes de integración, convivencia, igualdad y no discriminación en todos los niveles de la administración desde un enfoque comunitario y con la asignación presupuestaria necesaria
6. Llevar a cabo acciones de sensibilización dirigidas a la población local, que favorezcan la inclusión y convivencia con las personas refugiadas y migrantes, como las estrategias antirrumores.
7. Posicionarse de manera firme contra los discursos racistas y xenófobos, vigilando que los discursos políticos no instrumentalicen la inmigración ni fomenten la fractura social a través del odio.

8. Activar, desde los servicios públicos, la atención a víctimas de desigualdad de trato y discriminación.
9. Poner en valor la memoria histórica, porque, no hace tanto, fuimos exilio. Ahora nos toca ser refugio.

# MOZIOA

**ALFONTSO VIII KALEA ARRASATEKO KALE-IZENDEGITIK KENTZEA.**
1200.urtera arte Leintz bailara osoa, Arrasate barne, Nafarroako Erresumaren baitan zegoen baina bederatzi hilabetez iraun zuen Gasteizko setioren ostean, Nafarroaren Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko eskualde batzuk **konkistatu zituen Gaztela erresumak Alfontso VIII.aren bidez.**

Izan ere**, garai hartan ezagutzen dugun Gipuzkoa ez zen existitzen** eta bere lurraldean hiru entitate zeuden: Aitzorrotzia, Tierra de Ipuscaia eta San Sebastian eta **1200ko konkistaz geroztik Gaztelako eta gero Espainako erresumakoa da ofizialki.**

Gaztelako Alfontso VIII. Erregeak 1204. Urtean hilzorian zegoela berak **Nafarroari bidegabeki konkistaturiko lurrak (Araba, Gipuzkoa, Durangaldea) itzultzeko Nafarroako erresumari bere testamentuan jasotzeko agindu zuen.** Baldintza bakarra jarri zuen: errege nafarrak Alfonso VIII eta bere semea ez erasotzea, **baina sendatu zenean, bertan behera gelditu ziren nahi horiek**

Halaber, Pedro Gaztelako erregeak eta Carlos II Nafarroako erregeak 1366ko irailaren 23an **Libourneko tratatua** sinatu zuten non Nafarroako erresumak 56.000 urrezko florinak jasoko zituela eta Gaztelako erresumak konkistaturiko Gipuzkoa, Araba eta Errioxako lurrak itzuliko zizkiola Nafarroari baina tratatua ez zen gauzatu.

Hainbat urtetan **historiografia ofizialak konkistaren gaia aztertu du,** Gipuzkoa, **Gaztelara entregatu zela erresistentziarik gabe edo konkistatua izan zela argitzeko,** baina historiagile ugarik **konkistatua** izan zela mantentzen badute ere,( **bortizkeriaren erreferentzia eta testuen azterketa zein itzulpenak kontuan harturik**), beste batzuk, berriz, borondatezko entregarena aipatzen dute. Nolanahi ere, egun, kolaborazio teoria mantetzea posible izango balitz, ez dago inolako froga zehatzik horretaz eta tartean konjeturak, dokumentu falsifikatuak besterik ez daude, **horrek guztiak erresistentziaren teoria** sostengatzen du zalantzarik gabe.

Eta betean, 1200eko konkistaren erreferentzia Ximenez de Rada, Gaztelako erresumaren historiagileak **1243an latinez idatzitako "De Rebus Hispaniae"** liburua izan da eta sarri aipatu izan da **konkistaturiko gaztelu eta gotorlekuen** zerrendan Arrasateari buruzko erreferentzia ez zela agertzen, soilik, Aitzorrotzekoa. Kontua da, hainbat historiagile garaikidek testuan **Arzorocia ( Aitzorrotzia)** agertzen dela azaldu dute, beraien iritziz, tenentziaren ardurapean gelditzen zen esparrua zen: *Leintz bailara, Oñati, Soraluze-Bergara eta ia Kantauri itsasoraino iristen zen lur franja estua,* **dependentzia eklesiastikoari dagokionez, Calahorrako Artzapezkikuarekin loturik zegoena.** Hainbatek ere, Arzorocia izena aipatzean, propio, Arrasaterekin lotzen dute.

Izan ere, honekin loturik nabarmentzekoa da aipatzea duela hiru hamarkada, **"Colección de Documentos Medievales de las villas Guipuzcoanas"** bilduman **Idoia Arrieta historiagileak** ezagutarazitako agiri bat 1332.urtean datatua dagoen *Traslado del fuero de San Sebastian sacado a petición del concejo de la villa de Guetaria* izenburu duen dokumentuak horrela zioen: *"Don Alfonso de Castiella, que Dios perdona, que la dicha villa* ***conquisto****"*.

Jatorrizko agiriaren kopia eskatu zion Madrilgo errege Akademiari eta bertan, hitzaurrean SS konkistaren gertaera ontzat ematen da eta ezkerreko aldean ohar bat-" **ojo conquista de SS**"- jartzen zuen.
Ikusirik, **Donostia, 1200eko "Gipuzkoa"ren konkistaren barruan izan zela** eta aipaturiko dokumentua 1991tik aurrera historialariek dokumentua ezagutu zutela eta hainbatek ez dutela aipatu nahi izan informazioa, **ematen du informazioa historikoki ezkutatzen ibili dela**

Bestalde, Arrasateko herriaren historia gertaera batzuk jasotzean **(Santxo Abarka, gaztelua…)** hainbat idazlek aipatu izan dute *tradizio bulgarrean oinarritzen direla baina gero, gertaera hori historian oinarriturik ez*

*dagoenez herri sinesmen bat dela aipatzen zuten eta horren ondorioz ezinezkoa zela onartzea* . Ez dakiguna da historikoki nork erabaki zuen hori edo zer nolako historiagrafia jarraitzen zen hori erabakitzeko.

**Ez onartze hori, aldiz, ez da gertatu** Alfonso VIII errege konkistatzaileak 1200.urtean *"Gipuzkoako fueroak"* Arrasaten sinatu omen zituela kontatu dutenean. Egun, egintza horren euskarria Diputazioko beiratei batean islatuta omen dago eta horretaz, bi gauza nabarmendu behar dira: **garai hartan "Gipuzkoa"ko foruak ez zeudela eta urte hartan Alfonso VIII errege gaztelarra Arrasaten izan zela kontrastaturik ez dagoela.**

**Goian aipaturiko pasarte historikoak gure herriari dagozkionak dira, herriaren oroimen historikoaren parte eta herri baten iraupenerako etengabe eraiki beharrekoak, ezinbesteko prozesua baita gure identitatea garatzeko.**

Egun, Arrasateko herriaren kale izendegian ***Alfonso VIII kalea*** dago, 1200.urtean Arrasate konkistatu zuenaren erregearen omenez hain zuzen ere, eta **hori, oroimen historikoaren izenean hor mantentzea onartezina eta mingarria da gure herriarentzat.**

Horrela gauzak zera eskatzen dugu:

# PROPOSAMENA(K)

**a)Oroimen historikoaren izenean, "Alfontso VIII kalea" Arrasateko kale-izendegitik kentzea.**

b)**Udalari eskatzea bere Kultura sailaren bidez Gipuzkoako Foru aldundiarekin harremanetan jar dadila** bertan beiratei batean Alfonso VIII arekin loturik dauden egintza historikoak eta historia kronologiak **azter ditzatela, 1200.urtean "*Gipuzkoako foruak*" ez zeudelako( Gipuzkoa berez ez zen existitzen) eta Alfontso VIII urte hartan Arrasaten izan zela foru horiek zin egiteko kontrastaturik ez dagoelako.**

**c)-Portaloi aldearen horman plaka bat jartzea** non jasoko den Arrasate konkistatua izan aurretik Nafarroako Arzorocia (Aitzorrotzia) izeneko tenentzian zegoela . Plakak gainkaldean Nafarroako bandera izango du eta testua hauxe da:

Gaztelaren
konkistaren aurretik,
Arrasate,
**Arzorocia** ( Aitzorrotzia) izeneko
tenentzian kokatua,
egitura bateratu batean
antolatua zegoen:
NAFARROAKO ERRESUMA

d)2022ko uztailaren 19an, 500 urte betetzen dira Gaztelako ejertzitoak Amaiur gaztelua konkistatu zuenetik non bertan modu heroiko eta duinean Nafarroako erresumaren independentzia defendatzen hainbat nafar izan ziren. Hori dela eta, **horren omenez uztailaren 19an Nafarroako bandera udaletxeko balkoian jartzea.**

Arrasaten, 2022ko ekainaren 13an

## MOCIÓN

## ELIMINACIÓN DE ALFONTSO VIII KALEA DEL CALLEJERO DE ARRASATE

Hasta el año 1200 todo el valle de Leintz, incluida Arrasate, formaba parte del Reino de Navarra, pero tras el sito de Vitoria que duró nueve meses, el reino de Castilla, a través de Alfonso VIII, conquistó algunas comarcas de Gipuzkoa, Alava y Bizkaia de Navarra.

De hecho, la Gipuzkoa que conocemos no existía en aquella época y en su territorio existían tres entidades: Aitzorrotzia, Tierra de Ipuscaia y San Sebastián, desde la conquista de 1200 pertenece oficialmente al reino de Castilla y luego a España.

El rey Alfonso VIII de Castilla, en el año 1204 cuando estaba moribundo, ordenó que se contemplara en su testamento la devolución de las tierras indebidamente conquistadas (Álava, Gipuzkoa, Duranguesado) al reino de Navarra. Puso una única condición: que el rey navarro no agrediera a Alfonso VIII y a su hijo, pero cuando se curó estos deseos decayeron.

Asimismo, el Rey de Castilla Pedro y el Rey de Navarra Carlos II firmaron el 23 de septiembre de 1366 el Tratado de Libourn en el que el Reino de Navarra recibiría 56.000 florines de oro y devolvería a Navarra las tierras conquistadas por el Reino de Castilla de Gipuzkoa, Álava y La Rioja, pero el Tratado no se materializó.

A lo largo de muchos años la historiografía oficial ha analizado el tema de la conquista, Gipuzkoa, que se entregó a Castilla sin resistencia o conquistada, pero, aunque muchos historiadores mantienen que fue conquistado (teniendo en cuenta las referencias de la violencia y el análisis de textos y traducciones), otros, sin embargo, hacen referencia a la entrega voluntaria. No obstante, en la actualidad, si fuera posible mantener la teoría de la colaboración, no hay ninguna prueba concreta al respecto, entre la que se encuentran conjeturas, documentos falsificados, todo lo cual sustenta sin duda alguna la teoría de la resistencia.

Asimismo, la referencia de la conquista de 1200 ha sido el libro en latín "De Rebus Hispaniae", escrito en 1243 por el historiador del reino de Castilla, Ximenez de Rada, y se ha mencionado con frecuencia que en la lista de castillos y fortificaciones conquistadas no figuraba la referencia a Arrasate, únicamente la de Aitzorrotz. Lo cierto es que varios historiadores contemporáneos han explicado que en el texto aparece Arzorocia (Aitzorrotzia), que, en su opinión, era un ámbito que quedaba a cargo de la tenencia: *El valle de Leintz, Oñati, Soraluze-Bergara y la estrecha franja de territorio que llegaba hasta el mar Cantábrico,* en cuanto a la dependencia eclesiástica, estaba relacionada con el arzobispo de Calahorra. Algunos, al referirse a Arzorocia, lo vinculan expresamente con Arrasate.

En este sentido, cabe destacar que hace ya tres décadas, en la colección "Colección de Documentos Medievales de las villas Guipuzcoanas", el documento titulado Traslado del fuero de San Sebastián sacado a petición del concejo de la villa de Gaetana, fechado en 1332 y difundido por la historiadora Idoia Arrieta, decía lo siguiente: *"Don Alfonso de Castiella, que Dios perdona, que la dicha villa conquisto'.*

Solicitó copia del documento original a la Real Academia de Madrid, en la que en el preámbulo se da por bueno el hecho de la conquista SS y en el lado izquierdo había una nota que decía "ojo conquista de SS". A la vista de que Donostia-San Sebastián fue parte de la conquista de "Gipuzkoa" de 1200 y que el citado documento fue conocido por los historiadores a partir de 1991 y que muchos no han querido mencionar la información, parece que la información ha sido ocultada históricamente.

Por otro lado, al recoger algunos hechos de la historia del pueblo de Arrasate (Santxo Abarka, castillo...), varios escritores *han mencionado que se basan en la tradición vulgar pero que luego, al no estar basado en la historia este*

*hecho es una creencia popular y por tanto imposible de asumir.* Lo que no sabemos es quién o qué historiógrafía se seguía históricamente para decidir eso.

Esta inadmisión, sin embargo, no se ha producido cuando se cuenta que parece que el rey conquistador Alfonso VIII firmó en 1200 'los fueros de Gipuzkoa' en Arrasate. En la actualidad, el soporte de dicho acto se encuentra reflejado en una vidriera de la Diputación, del que cabe destacar dos cosas: Que no está contrastado que en aquel momento no existían los fueros de "Gipuzkoa" y que ese año el rey castellano Alfonso VIII estuvo en Arrasate.

Los pasajes históricos arriba mencionados son los correspondientes a nuestro pueblo, que deben ser construidos permanentemente como parte de su memoria histórica y para la pervivencia de un pueblo, siendo un proceso imprescindible para el desarrollo de nuestra identidad.

En la actualidad, en el callejero del municipio de Arrasate se encuentra la calle Alfonso VIII, en honor al rey de quien conquistó Arrasate en el año 1200, lo que hace inaceptable y doloroso para nuestro pueblo mantenerlo allí en nombre de la memoria histórica.

Así, pedimos lo siguiente:

**PROPUESTA(S)**

a) En nombre de la memoria histórica, eliminación de "Alfontso VIII kalea" del callejero de Arrasate.

b) Solicitar al Ayuntamiento, a través de su Departamento de Cultura, que se ponga en contacto con la Diputación Foral de Gipuzkoa para que en una vidriera analice los hechos históricos y las historias cronológicas relacionadas con Alfonso VIII, ya que en el año 1200 no existían los "Fueros de Gipuzkoa" (Gipuzkoa en sí misma no existía) y porque no está constratado que Alfonso VIII estuvo en Arrasate para prestar juramento a dichos fueros.

c) Colocación de una placa en el muro de la zona del Portalón en el que se recoja que Arrasate se encontraba en la tenencia de Arzorocia (Aitzorrotzia) de Navarra antes de ser conquistado. La placa tendrá en su parte superior la bandera de Navarra y el texto es el siguiente:

Gaztelaren konkistaren aurretik, Arrasate, Arzorocia (Aitzorrotzia) izeneko tenentzian kokatua, egitura bateratu batean antolatua zegoen: NAFARROAKO ERRESUMA

d) El 19 de julio de 2022 se cumplen 500 años de la conquista del castillo de Amaiur por parte del ejército de Castilla, donde muchos navarros defendieron heroica y dignamente la independencia del reino de Navarra. Por ello, en su honor colocar la bandera de Navarra en el balcón del Ayuntamiento el día 19 de julio.

En Arrasate, a 13 de junio de 2022

Sarrerako erregistroa : A/22-07681
Entitatea : Arrasateko Udala
Data: 2022/07/11 - 13:13:04

**MOZIOA HERRIKO KALEEN IZENAK ALDATU AURRETIK LANKETA BEREZIA EGITEKO**

ARRASATEko Udalak, Mozio bat jaso du Zuztarrak Errotuz kultur taldearen eskutik Alfonso VIII kalea Arrasateko kale izendegitik kentzeko, beste hainbat eskaera medio.

